



OLATUEN GAILURREAN

El surf femenino pasa por uno de los mejores momentos de la historia de este deporte acuático. Aun así todavía existe la necesidad de eliminar tópicos, que lo relacionan con una actividad masculina, y alcanzar la categoría que se merece.

1957. urtean Peter Viertel zine-magile kaliforniarra Biarritzera grabaketak egiteko asmoarekin etorri zenean, bertako olatuekin maitemindu eta bere herrialdean oso zabaldua zegoen kirola gure kostaldeetara ekartzeko burutazioa izan zuen. Europako surfaren historia ofizialaren arabera, momentu honetatik aurrera kontinente zaharreko hondartzak taula baten gainean olatuetan irrist egiten zuten kanpotarrez betetzen hasi ziren.

Hala ere, bada ezkuutuago mantendu den beste historia bat. Izan ere, 30. hamarkadan, Biarritzen baita ere, Bodysurfa praktikatzen zuten emakumeen testigantza existitzen da.

Emakume hauen esanetan, garai hartako Biarritzeko bizilagunen artean emakumeak surfa egiten eta izterrak erakusten ibiltzeak izugarritzko zalapartak eta hase-errealdiak sortarazten zituen.

Gaur egun gauzak desberdinak dira. Azkenaldiko urteetan gorakada itzela nabarmendu da surfaren munduan. Gure kostaldean gero eta surf eskola gehiago sortzen ari dira, hauetako askok ehuneko ehunean 5 urtetik 50 urtera bitarteko emakumez osotuak. Inguruan antolatzen diren txapelketetan ere, gero eta jende gehiagok hartzen du parte, eta Europa eta nazioarte mailan gero eta ezagunagoak dira lehiaketa hauek.

Egunotan Zarautzen ospatu den Nesken Surf Biltzarra ugal-tze honen adibide argia da. Estatuan nesken txapelketa antolatzen den nazioarteko txapelketa bakarra da eta 4 urteko ibilaldi laburrean marka guztiak hautsi ditu. Iazko txapelketan munduko herrialde desberdinetako 170 emakumek hartu zuten parte, surfean inoiz ikusi ez den neska kontzentrazio-rik handiena izanik.

Euskal Herriko Surf Federazioarekin hitz egin dugu, eta beraien esanetan "Nesken Surf Biltzarra kirol honetan aritzen diren emakumeei bultzada emateko sortu zen". Izan ere "nesken txapelketa, mutilentzako baino zailagoa da bai txapelketetan

ADIOS A LA MEJOR IZQUIERDA DE EUROPA

Si duda la desaparición de la famosa ola de Mundaka, una de las más prestigiosas del mundo, ha revuelto el panorama del Surf en nuestras costas y en los circuitos internacionales en general.

La de Mundaka ha sido una ola única en toda Europa y una de las diez izquierdas más importantes del mundo, pero un dragado realizado en esta zona en el 2003 cambió el curso de la ría de Urdaibai y la ola ha ido desapareciendo hasta tal punto, que este año no se realizará el campeonato de octubre de Mundaka.

Aunque los técnicos que han estudiado el caso afirman que, con los años, el cauce de la ría volverá a su lugar original, la intranquilidad que se respira entre los surfistas también se hace notar en otros sectores de la comarca. Mundaka corre el riesgo de perder la reputación que ha adquirido durante largos años de campeonatos internacionales y el surf mundial se quedará por mucho tiempo sin uno de los lugares más emblemáticos para esta actividad.

parte hartzea bai babesleak lortzea". Kirol gehienetan gertatzen den moduan, surfean ere gizonzkoen txapelketek jasotzen dute interes eta garrantzi gehiena, neskak bigarren maila batean geratzen direlarik. Askotan, babesleen falta dela eta, zirkuituetan eta txapelketan parte hartu nahi duten emakumeek beraien poltsikotik ordaindu behar dituzte hondartzatik hondartzara joateak eta etxetik kanpo egoteak sortarazten dituen gastu guztiak. EHSFko kideen hitzetan "Nesken Surf Biltzarrak, doako txapelketa izateaz gain, neskok gure balia erakusteko eta gure artean harremanak sortzeko daukagun tresna garrantzitsu bat da".

Aurten Itziar Bustamante Euskal Herriko Surf Federazioko lehendakari izendatu dute. Gutxi dira mota hauetako eran-

tzukizunak dituzten emakumeak eta Itziarren izendatzea ez da kasualitatea izan. Merezitako kargua da gainera, Euskal Herriko surfleri onenatariko bat izateaz gain urte asko eman baititu kirol honen garapen lanetan.

Hala ere oraindik lan handia dago emakumeen surf munduan. Surfleriaren babesleak eta surf aldizkarietako arduradunak neskak bikini bat janzteko edo portada polit bat egiteko baino gehiagorako balio dutela zabalitzen hasi behar dira; "pena da baina gaur egun babesleak zugan interesa ager dezaten eta eliteko txapelketan parte hartzeko aukera izan dezazun, surfari ona izateaz gain, marka konkretu bateko bainujantzia ondo geratu behar zaizu edo aldizkarietako chica del mes izan behar zara". **F**



Nesken surf biltzarra 2004